

Zatoz euskaraz!

Azken 25 urteotan euskararen normalizazioan aurrerapauso handiak eman ditu Oñatik. Ahalegin handia egin dute, esate baterako, eskolek eta euskaltegiek belaunaldi euskaldunak gizarteratzen. Eta ahalegin handia egin da beste zenbait alorretan ere, esate baterako, merkataritzan, zerbitzuetan, herri komunikabideetan, enpresetan... eta udal administrazioan ere bai.

Udaletan langileak euskalduntzeko baliabide asko ipini ziren duela urte batzuk eta legea betez euskara Udalean lan-hizkuntza izateko bideak zabaldu dira azken urteotan. Baina langileek ez ezik, zinegotziek ere, funtzio publikoa betetzen duten heinean, herritar guztxi erantzun behar diete eta legearen arabera gure herriko hizkuntza ofizialak bi direnez, elebidun izan beharko lukete, herritarrak eurek aukeratzen duten hizkuntzan atentituak izateko.

Alde horretatik, bada, 2011ko maiatzean izango ditugun udal hauteskondeei begira, hautagai euskaldunak aurkezteko eskatu die Udalak Oñatiko alderdi politikoei. Izan ere, zinegotziek euskaraz jakiteak garrantzi handia du Udalean urteetan euskararen normalizazioan egin den ahalegina bertan behera ez geratzeko eta aurrera pausok ematen jarraitu ahal izateko. Horregatik alderdi politikoei "Zatoz Udalera euskaraz!" esaten diegu.

Alderdiei ez ezik, euskara eguneroko zereginetan normaltasunez erabiltzeko ahalegina egiten duzun herritar horri ere horixe eskatzen dizugu: euskaraz egiteko Udalarekin dituzun harremanetan. Zeuri ere badagokizu euskararen egoera normalizatzea eta zeure esku ere badago. "Zatoz Udalera euskaraz!"

¡El euskara es de todos!

A lo largo de los últimos 25 años se han dado pasos importantes para la recuperación del euskera en Oñati. Sin duda, el esfuerzo realizado por el sistema educativo y los euskaltegis en la enseñanza del euskera ha posibilitado la presencia de varias generaciones de personas que conocen tanto el euskera como el castellano en todos los campos profesionales. Además, el sector servicios, los comerciantes, los medios de comunicación local, las empresas y también la administración se han sumado a ese esfuerzo por la recuperación del euskera.

En este contexto llegamos a las elecciones municipales de 2011. Por ello el Ayuntamiento ha solicitado a los partidos políticos que, conscientes de que nuestra realidad lingüística es bilingüe, actúen en consecuencia con el trabajo de normalización llevado a cabo durante todos estos años y que presenten candidatos bilingües que ofrezcan a los ciudadanos la posibilidad de comunicarse con sus representantes en cualquiera de los dos idiomas oficiales de la CAV. Si eso no fuera posible, que sean concejales que faciliten seguir avanzando en el camino de la recuperación del euskera en Oñati.

Zatoz Udalera euskaraz



%80

Biztanle euskaldunak 2001
Habitantes vascoparlantes 2001



%96

Udaleko langile euskaldunak 2010
Trabajadores vascoparlantes 2010



%100

Ahozko erabilera Udalean 2010
Hablado en euskara 2010



%100

Idatzizko erabilera Udalean 2010
Escrito en euskara 2010

Oñati
Zatoz Udalera euskaraz

